




GENEROAREN ARABERAKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

BERMEOKO PORTUAREN ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIAREN 3. ALDAKETA

2021eko MAIATZA





Txosten hau LUR Studio-k idatzi du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzarentzat.

Txostenaren egilea:

Jone Belausteguigoitia Garaizar, arkitektoa, 419.435 CSCAE elkargokide-zenbakiduna.

Itzulpena: Idoia Barrondo Etxebeste.

2021eko aldaketak: Jone Belausteguigoitia



EDUKIA

1. ATARIKOA.....	4
1.1 Txostenaren xedea eta eremua	4
1.2 Txostenaren helburuak	5
2. AURREKARIAK	6
2.1 Arautze-esparrua	6
2.2 Kontzeptu-esparrua	8
3. PLAN BEREZIAREN AZALPEN OROKORRA	11
3.1 Arauaren proiektuaren edo administrazio-egintzaren proposamenaren izena.....	11
3.2 Zein eragilek sustatzen duen eta zein taldek idatzi	11
3.3 Zein arauk, planek eta aberrek zerikusia duten Plan Bereziaren Aldaketarekin	11
3.4 Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren Aldaketaren helburu orokorrak.....	13
3.5 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak.....	14
4. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA	15
4.1 Emakumeen eta gizonen egoera arauak arautzen duen eremuan	15
4.2 Planaren onurak edo emaitzak	17
4.3 Baliabideak eskuratzeari dagokionez	19
4.4 Ordezkaritza erabakiak hartzean	19
4.5 Gizarte-arauak gainditu edo aldatzea	20
4.6 Arauak eta bestelako tresna juridikoak betetzea	21
5. DESBERDINTASUNAK EZABATU ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK.....	22
5.1 Segurtasuna	23
5.2 Mugikortasuna eta irisgarritasuna	23
5.3 Lana eta familia bateragarri egitea eta denbora kudeatzea	24
5.4 Etxebizitzarako eta etxebizitzako eskuragarritasuna.....	25
5.5 Zerbitzueterako, ekipamenduetarako eta espazio publikorako eskuragarritasuna...	25
5.6 Enplegurako eta ekonomiarako eskuragarritasuna	26
5.7 Berdintasunezko aintzatespen soziala	27
5.8 Hizkuntza ez sexistaren erabilera	28
5.9 Neurrien laburpen-taula.....	29
6. ONDORIOAK	32

I. ATARIKOA

I.1 Txostenaren xedea eta eremua


Aurrekariak eta xedea

2019ko abenduan, Bermeoko Portuko Plan Bereziaren 3. Aldaketaren generoaren araberrako eraginari buruzko txostena idatzi zen. 2020ko urriaren 14an, hasierako onespina eman zitzaion, eta jendaurrean jarri zen, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 35.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, 45 egun balioduneko epean. Jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioak eta txostenak aintzat hartuta, beharrezkotzat jo zen Plan Bereziaren 3. Aldaketaren edukia aldatzea. Hori dela eta, 2021ean bertsio berri bat idatzi zen, hasierako onespina berria eta jendaurreko informazio-aldia ekarriko dituen.

Testuinguru horretan, txosten honen xedea da Bermeoko Portuko Plan Bereziaren 3. Aldaketa idazterakoan generoaren araberrako eragina ebaluatzea, 2021eko bertsioan.

Eremua

Bermeoko Portuaren Antolamenduaren Plan Bereziaren 3. Aldaketaren xede-eremua hau da: 449.645 m², zeinaren itsas azalera 298.005 m²-koa den (eremuaren bi heren) eta lur-azalera, 151.640,24 m²-koa (gainerako herena). Azalera hori Bermeoko udalerrinari dagokio gehienbat, eta hirigunetik gertu dago. Ekialdeko muturra Mundakako udalerrinari dagokio.



Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketaren eremuaren kokapena.

1.2 Txostenaren helburuak

Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketa generoaren arabeko eraginari buruzko txostenak hiru helburu hauek lortu nahi ditu:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko helburua Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketa egitean txerta dadila erraztea.
- Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketaren jasotzaile diren emakumeen eta gizonen beharrei buruzko informazio gehiago ematea, horrela, Planaren eraginkortasuna handiagoa izan dadin.
- Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin gehiago konprometitzen diren erabakiak har daitezen ahalbidetzea.



Bermeoko Portua.

2. AURREKARIAK

2.1 Arautze-esparrua

Euskal Autonomia Erkidegoan genero-berdintasun gaietan, lege eta arau hauek osatzen dute arautze-esparrua: **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa**, eta 40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21koa, zeinaren bitartez **genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak** onartzen diren **eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzen diren**.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, **3.4. artikuluan** honela dio: “Euskal herri-aginteei genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten”.

Lege horren ondorioetarako, “genero-ikuspegia txertatze”tzat hartzen da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, nahi eta behar desberdinak sistemaz aintzat hartzea, eta horretarako, berariazko helburuak eta jarduketak txertatzea, ezberdintasunak ezabatzeko eta politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Hain zuzen ere, Lege horren **46.1. artikuluan** hau adierazten da: “Euskal herri-aginteei beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere”.

Oro har, xedapen orokorren gaineko proiektu guztiek, hots, lege-mailako edo erregelamendu-mailako arau juridikoen gainekoek, generoaren arabera eraginari buruzko txostena barne hartu beharko dute. Hortaz, **Bermeoko Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren 3. Aldaketak**, hirigintzako plangintzako agiria denez, **txosten hori barne hartu beharko du**.

Bestetik, 2019ko uztailaren 30ean behin betiko onartutako Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) berrikuspenaren dokumentuak genero-ikuspegia lurraldean eragina duen zeharkako gaitzat hartzen du, irisgarritasun unibertsalarekin, klima-aldaketarekin, osasunarekin, euskararekin eta lurraldeen arteko harremanarekin batera. Hori dela eta, 30. artikuluan genero-ikuspegia buruzko gidalerro batzuk ezartzen ditu.

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG)

30. artikulua. – Genero-ikuspegiaren arloko gidalerroak.

1.– Lurraldearen izaera polizentrikoa sustatzea, non hiri ertainen protagonismoa berreskuratzea funtsezkotzat jotzen den zerbitzuak biltzeko eta emateko zentroak diren heinean.

2.– Lurraldea planifikatzean, erabilera guztiak, eta bereziki eguneroko bizitzarako beharrezkoak direnak, hurbil kokatzea, joan-etorriak ibilgailuz egin beharra murrizteko edo denborak ahal den neurrian laburtzeko moduan.

3.– Hurbiltasuneko hiri konplexua sustatzea, ongi hornitutako auzo seguruetan oinarritua, hiriko eta lurraldeko beste eremu batzuekin garraio publiko bidez ongi konektatuak.

4.– Gune publiko bizi eta seguruak indartzea, haien gizarte-eginkizuna mantendu eta sustatzeko eta herritarrei haiek erabiltzeko aukera emateko.

5.– Gune publikoak planifikatu eta diseinatzean, emakumeen, adinekoen (bi sexuen premia diferentziaiei arreta eskainiz) eta haurren premiak kontuan hartzea.

6.– Dentsitate nahikoa duen hiri-eredu bat sustatzea, erabilerak behar bezala nahastea eta eguneroko bizitzarako behar diren ekipamenduetara oinez iristea ahalbidetuko duena, baita garraio publikoaren eraginkortasuna ere, ibilgailu pribatu bidezko mugikortasunaren mendetasuna murrizteko moduan.

7.– Garraioaren plangintzan eta kudeaketan genero-ikuspegia sartzea, jardura horietan emakumeen mugikortasun-jarraibideak, bidaiatzeko modua eta joan-etorrien denbora- eta ordu-murrizketak kontuan hartzeko moduan, eta emakumeen irisgarritasun-premiak eta segurtasuna kontuan hartzeko moduan.

8.– Zaintzaren mugikortasuna sustatzea, beste pertsona batzuk zaintzearekin eta etxea mantentzearekin lotutako bidaiak ahalik eta denbora gutxienean, eskatutako ordu-tarteetan eta arrazoizko kostu batekin egiteko aukera ziurtatuz, eta pertsonen ordainpeko enplegua zaintza-erantzukizunekin bateragarri egiteko bidea emanez.

9.– Espazio publikoan segurtasuna bermatzea; horretarako, plangintza-prozesuan, parte-hartze prozesuen barruan, talde sozial batzuek eta besteek arriskutsu edo ez seguru gisa ikusten dituzten guneak identifikatuko dira.

10.– Herritarrek parte hartzeko prozesuak garatzea genero-ikuspegia aintzat hartuz emakumeen parte-hartzea indartzeko.

2.2 Kontzeptu-esparrua

Txostena idatzi edo irakurri aurretik, kontzeptu hauek argitu beharra dago: genero-desberdintasuna, genero-berdintasuna, genero-ikuspegia txertatzea, hirigintzak gizakiongan duen eragina, genero-hirigintza eta nola hori hirigintza inklusiboago eta bidezkoago bateranzko joeraren zati den. Kontzeptu-esparru horren oinarria Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen “Generoaren arabera eraginaren txostenak egiteko gidaliburua”, 2013, eta genero-ikuspegia plangintzan txertatzeari buruzko beste agiri batzuk dira.

Genero-desberdintasuna¹

- **Sexua eta generoa ez dira gauza bera.** Sexua da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun biologikoa. Generoa, berriz, gizarte-erakuntza, rolak, estereotipoak eta balioak, sexu batekoa ala bestekoa izatearekin loturik daudenak.
- **Sexu-genero sistema da emakumeei zaintza-lana** –eremu pribatuan eta ordaindu gabe egiten dena- eta **gizonei produkzio-lana** –eremu publikoan eta ordainduta egiten dena- **esleitzen dizkien** prozesua.
- Sexu-genero sistemaren **ondorioa da emakumeek bereizkeria** pairatzen dutela gizartean eta, ondorioz, eskubide, baliabide eta aukerak eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztela, eta horien ezaugarri eta ekarpenei balio gutxiago ematen zaiela.
- Bestalde, egoera jakin batzuek bereizkeria areagotzen dute, emakume izateaz gain, beste faktore batzuk ageri direnean, hala nola, adina, arraza, hizkuntza, sexu-joera edota bereizkeria anizkoitza eragiten duten beste faktore batzuk.

Genero-berdintasuna²

- **Berdintasunak dakar bai tratu-berdintasuna (bereizkeriarik ez egotea) bai aukera-berdintasuna** (eskubide guztiak berdintasunean erabili ahal izatea, eta horren barruan sartzen da bai boterea bai baliabide eta onura ekonomiko zein sozialak kontrolatu eta eskuratu ahal izatea).
- Berdintasunak ez dakar tratu berbera, baliabide nahiz onurak eskura berdina izatea eta boterea zein eskubideak berdina gauzatzea baizik.
- Horrenbestez, kolektibo bat hasieran desabantaila-egoeran baldin badago, kolektibo bereizi horri tratu desberdina eman beharko zaio.

¹ "Generoaren arabera eraginaren txostenak egiteko gidaliburua", Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, 2013.

² "Generoaren arabera eraginaren txostenak egiteko gidaliburua", Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, 2013.

Genero-ikuspegia sartzea³

- Generoaren ikuspegia -mainstreaming- sartzea da emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduera zehatzak txertatzea.
- **Generoaren ikuspegi hori ezartzeko ezinbestekoa da konpromiso politiko sendoa**, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako **berariazko politikak** indartzea, sexuaren arabera bereizitako **estatistikak** eta tresna egokiak izatea, genero-harremanak eta Administrazioa **ezagutzea**, finantza-baliabide eta baliabide pertsonal nahikoak izatea, emakumeen **parte-hartzea** bultzatzea eta instituzio nahiz erakundeetako **egiturak** eta prozesuak **aldatzea**.

Hirigintzak gizakiongan duen eragina

- **Hirigintzak gizakion eguneroko bizitzan du eragina**, pertsonen ingurunearen oinarri fisikoa arautzen baitu: espazio libreak, ekipamenduak, etxebizitzak, lanerako espazioak, mugikortasunerako espazioak, etab. Hirigintzak, funtsean, hiri- eta landa-ingurunea osatzen duten espazio eta eraikinen zer, non, zenbat eta nola arautzen ditu.
- Hirigintzak eragin zuzena du pertsonen eta gizarte-taldeek lantokiak, ekipamenduak eta zerbitzuak eskuratzeko duten moduan, hain zuzen, horiek erabiltzeko erosotasunean eta horiek eskuratzeko garraio-premian⁴.
- Hiri bateko biztanleen eguneroko bizitzan **eragin handiena duten alderdi zehatzenetako asko** ez daude Plan Orokorra den esparru-antolamenduko tresnaren arauketaren mende, garapen-plangintzako tresnen, Plan Partzialen eta **Plan Berezien** (hala nola, Bermeoko Portuaren Plan Berezia) eta etxebizitzak eta ekipamenduak urbanizatzeko edota gauzatzeko proiektu zehatzen mende baitaude.⁵

³ "Generoaren arabeko eraginaren txostenak egiteko gidaliburua", Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundea, 2013.

⁴ "Urbanismo con perspectiva de género", Inés Sánchez de Madariaga. Instituto Andaluz de la Mujer.

⁵ "Informe sobre discriminación y género en el uso de la ciudad", Irungo HAPOaren hasierako onespeneraren agirirako egindako txostena, 2011. Iñaki Iturbe / Rafael Peñuelas, arkitekto hirigileak.

Genero-hirigintza

- Pertsonak **behar eta nahi ezberdinak** dituzte, lurraldearen eta hiri- eta landa-inguruen arabera, eguneroko bizitzan onartzen dituzten **genero-rolen ondorioz**⁶.
- Hortaz, genero-ikuspegia lurraldearen antolamenduan sartzeari esker, emakume eta gizonei bermatu ahal zaie baliabide guztiak aukera berdinetan eskuratuko dituztela⁷.
- Edozein hiritan indarrean dagoen arautegian genero-ikuspegia sartzeko helburua da, agiri horien eskumenen barruan, euskarri fisikoak edo habitata orain sor ditzakeen edo etorkizunean sor litzakeen desberdintasunak (generoan, sexuan, adinean, arrazan egoera sozio-ekonomikoan, sexu-joeran eta abarretan oinarritutakoak) benetan gutxitu edota kentzea, zerbitzuak eskuratzeko birbana dadin eta erabilera edo bi modu ezberdinak modu eraginkor eta bidezkoan erraz daitezen, genero-eraginaren testuinguruaren barruan ulertuta beti⁸.

Pertsona guztiekin inklusiboa eta bidezkoa den hirigintza baterantz

- Ondorio gisa, aipatzekoa da **genero-ikuspegia** sartzek besterik gabe dakarrela hirigintza **inklusibo eta bidezkoagoa, herritar guztientzako**, eraikitzeko bidean. Hirigintzak, pertsona guztien beharrak bete nahian, horretarako behar diren begirada espezifiko eta beharrezkoak ekarri beharko ditu: **adinekoenak, umeenak, gazteenak, mugikortasun urriko pertsonenak, dibertsitate funtzionala duten pertsonenak ...**

⁶ Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG), testuaren hasierako onespina, 2018ko otsailean.

⁷ Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (DOT), testuaren hasierako onespina, 2018ko otsailean.

⁸ "Recomendaciones para la incorporación de la perspectiva de género en el planeamiento urbano", Eva María Álvarez Isidro, Carlos José Gómez Alfonso, Departamento. Proyectos Arquitectónicos, Valentziako Universitat Politècnica.

3. PLAN BEREZIAREN AZALPEN OROKORRA

3.1 Arauaren proiektuaren edo administrazio-egintzaren proposamenaren izena

Bermeoko Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren 3. Aldaketa.

3.2 Zein eragilek sustatzen duen eta zein taldek idatzi

Plan Bereziaren 3. Aldaketaren erakunde sustatzailea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza da.

Talde idazlea hau da: Anton Agirregoitia Aretxabaleta eta Iñaki Peña Gallano arkitektoak, Arkitektura eta Hirigintza Bulegoko bazkideak, eta Ibon Pascual Arechabaleta arkitektoa, bereziki espedienteko dokumentazio grafikoarekin lotutako lanak eginez.

3.3 Zein arauk, planek eta aberrek zerikusia duten Plan Bereziaren Aldaketarekin

Txostenaren hasieran esan bezala, 2020ko urriaren 14an Bermeoko Portuko Plan Bereziaren 3. Aldaketari hasierako onespina eman zitzaion eta jendaurreko informazioaren izapidea egin zen, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 35.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, 45 egun balioduneko epean. Jendaurrean jartzeko epean aurkeztutako alegazioak eta txostenak aintzat hartuta, beharrezkotzat jo zen Plan Bereziaren 3. Aldaketaren edukia aldatzea. Hori dela eta, 2021ean bertsio berri bat idatzi zen, hasierako onespina berri bat eta 45 eguneko epea jendaurrean jartzeko.

Era berean, Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren 3. Aldaketak **Plan Berezi horren 2. Aldaketarekin**, 2018ko azaroaren 20an behin-betiko onetsita.

Udal-plangintzari dagokionez, Plan hauekin hauek dute zerikusi zuzena:

- **Bermeoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra**, Bermeoko Udalaren osoko bilkurak 2011ko irailaren 20an behin betiko onartu zuena (Bermeoko Portuko Plan Bereziaren lehenengo Aldaketa behin betiko onartu ondoren).
- **Mundakako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra**, 3.627/2015 Foru Agindua, 2015eko abuztuaren 13koak, behin betiko onartu zuena (Bermeoko Portuko Plan Bereziaren lehenengo Aldaketa behin betiko onartu ondoren). Mundakako hiri-antolamenduko plan orokorraren hirigintza-arauek Bermeoko portua antolatzeke plan bereziaren antolamendu xehatua jasotzen dute plangintza erantsi gisa, haren egiturazko antolamenduen 2.14.7.E2. artikuluan adierazitakoaren arabera. **Proposamen honek Mundakako HAPOn ezarritakoa betetzen du.**

Aurrekoek ez ezik, lege hauek ere: **Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea**, baita **portu-gaien gaineko arautegi sektoriala, estatukoa eta autonomikoa**, uztailaren 28ko 22/1988 Kostaldean Legearen zehaztapenak, horren Araudi Orokorra, urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuak onartu zuena eta 2/2018 LEGEA, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.

Genero-ikuspegiari dagokionez, aurrean adierazitako arau-esparrua ez ezik, hauek ere nabarmentzen dira berdintasun-arloan:

Bermeoko Udala:

- Emakumeen eta Gizonen arteko aukera-berdintasunerako I. Udal Plana. 2010-2013
- II. Berdintasun Plana. 2019-2022.
- Berdintasunerako batzorde feministaren arautegia, 2019ko otsailaren 28a.

Mundakako Udala:

- Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako I. Plana, 2018ko abendua.

Bermeoko I. Berdintasun Planean jasotako hirigintza-alderdiak

Bermeoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Udal Plana 2010-2013, XI. gaian. Garraioa eta Hirigintza Sailak Planari aplikatu dakiokeen helburu bat ezartzen du, tartean dauden zenbait ekintza, adierazle eta udal erakunde eta arloekin. Batzuk planaren eremuan aplikatzekoak dira, eta beste batzuk ez.

11.2 helburua: hirigintza-konfigurazioa egiteko, kontuan hartzea biztanleria osoaren beharrak eta erabilera-moduak, emakumeen beharrian espezifikoak eta pertsonen lana eta familia bateragarri egitearekin lotutako beste batzuk barne.

EKINTZAK:

11.2.1 Politikariei eta udal-teknikariei jakinaraztea nola txertatu aukera-berdintasunaren ikuspegia udalerriko hirigintzan.

11.2.2 Zenbait kale eta eraikinetarako irisgarritasuna zailtzen duten arkitektura-oztopoak kentzea.

11.2.3 Aisialdirako guneak, berdeguneak, bidegorriak eta abar sor daitezen sustatzea.

11.2.4 Kexak eta iradokizunak jasotzeko zerbitzua sortzea.

11.2.5 Emakumeen beharrak sistematikoki aztertzeke jarraibideak ezartzea.

11.2.6 Kaleetako argiztapena handitzea, udalerrian iluntasun-punturik egon ez dadin. Leku ilunen jarraipena. egin.

11.2.7 Emakume ospetsuen izenak jartzea kale, eraikin edo plaza berriei.

11.2.8 "Arrisku-lekuen" mapa bat egitea, emakumeentzat oso seguruak edo iristezinak diren lekuak identifikatzeko.

11.2.9 Hirigintzako plangintzak eta diseinuak familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzeari eragiten dizkion oztopoei buruzko diagnostikoa egitea.

EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

- Sortutako jolas-guneen, bidegorrien eta berdeguneen kopurua.
- Emakumeek eta gizonen hirigintzaren arloan egindako hobekuntza-iradokizunen, kexen eta abarren kopurua.
- Ezabatutako oztopo arkitektonikoen kopurua.
- Udal-azpiegiturretan dauden emakumeen izenen kopurua.
- Arrisku-lekuen mapa.

INPLIKATUTAKO UDAL ERAKUNDE ETA ARLOAK

- Beruala.
- Hirigintza, Obra eta Ingurumen Arloa.
- Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.

3.4 Bermeoko Portuaren Plan Bereziaren Aldaketaren helburu orokorrak

Bermeoko Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren 3. Aldaketa irizpide eta helburu orokor hauek zuzentzen dute:

1. Portuaren eta hiriaren arteko elkarrekintzan gertatzen diren espazioen hiri-kalitatea hobetzea.
2. Emakumeen eta gizonen berdintasuna.
3. Eraikuntzaren araubidea eta lehendik dauden erabilerak hobetzea eta malgutzera. Eraikinen, instalazioen eta erabileren zehaztapen berria, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen arabera.
4. I. gunean dauden eraikinen tratamendua, Frantxuako kaia. SZUC_B01 azpideremua plan berezi honen antolamenduan.
5. Frantxuaren iparraldean dagoen I-2 azpideremuaren kalifikazio orokorra aldatzea, Urdaibaiko itsasertzeko ES213007 KBEa izendatzeagatik.
6. Baimendutako erabilerak zabaltzea plan bereziaren 2. bertsio V-2 azpideremuan (SZIC_B01), Matxikortako kaian dagoen plan bereziaren bertsio honetan.
7. Portuko zerbitzu-eraikina handitzea.

3.5 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak

Berdintasunaren arloan, Bermeoko Portuko Plan Bereziaren 3. aldaketaren memoriaren dokumentuak honako hau jasotzen du berariaz:

A.5.4.2 emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko irizpideak eta helburuak

Memoria honetako A.8 atalean ematen den generoaren araberako eraginari buruzko txostenaren edukia alde batera utzi gabe, garrantzitsutzat jotzen da plan bereziaren 3. aldaketa honen antolamenduaren edukia informatzen duten zehaztapenen irizpide eta helburuen atal honetan honako irizpide eta helburu hauek adieraztea:

Berariaz adierazi behar da ezen, Bermeoko portuko plan bereziaren esparruko portu-jarduerak gauzatzean eta garatzean, Generoaren araberako Eraginaren Ebaluazioaren edukia aplikatuzetik erator daitezkeen jarduerak sustatuko direla, bai eta genero-berdintasuna hobetzeko egokitzen jotzen direnak ere.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, beharrezkotzat jotzen da Bermeoko portuaren espazio-antolamendua onartzeko prozesuan emakumeen parte-hartze sozial handiagoa sustatzea, horretarako ezarritako legezko izapideen arabera.

4. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioak planean proiektatutako jarduerak, arautze edo esku-hartzearen xede den gizarte-testuinguruan, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburuan izan ditzakeen ondorio onak ala txarrak aztertzen ditu.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen “Generoaren araberako eraginaren txostenak egiteko gidaliburua” izenekoari jarraiki, jarraian genero-ikuspegitik aztertuko dira:

- Planaren onurak edo emaitzak
- Baliabideak eskuratzea hobetzea
- Erabakietan parte hartzea
- Gizarte-arauak gainditu edo aldatzea
- Arauak eta beste tresna juridiko batzuk betetzea

4.1 Emakumeen eta gizonen egoera arauak arautzen duen eremuan

Bermeoko biztanleriaren ezaugarriak

Bermeon 16.910 biztanle daude (2020ko datuak, Eustat). Emakumeen eta gizonen ordezkartza ia berdina da (% 50,6 eta % 49,4, hurrenez hurren). Bermeoko emakumeen proportzioa bere ingurukoen oso antzekoa da (Gernika-Bermeo), eta apur bat txikiagoa Bizkaian eta Euskal Autonomia Erkidegoan baino.

Adierazlea: emakumeen ehunekoa (Eustat)


- Bermeo % 50,6
- Gernika-Bermeo % 50,8
- Bizkaia % 51,9
- EAE % 51,5

Gizonekiko emakumeen proportzioak gora egiten du adinarekin, eta handiagoa da 65 urtetik gorakoen artean (% 56,7), zertxobait txikiagoa 20 eta 64 urte bitartekoen artean (%49,2) eta are txikiagoa, 19 urtetik beherakoen artean (% 47,8).

Edad	Unidades	%			Ratio sexo
		Tot	Muj	Hom	
≥ 65	3.758	22,4	56,7	43,3	1,31
20-64	9.975	59,5	49,2	50,8	0,97
≤19	3.033	18,1	47,8	52,2	0,92
Total	16.766	100,0	50,6	49,4	1,02


Adin-taldeak, 2017. Iturria: Eustat.

Adinaren eta sexuaren arabera, biztanleriaren %8,65, hamar pertsonatik bat baino zertxobait gutxiago, 19 urtetik beherako emakumeak dira. Hamarretik ia hiru 20 eta 64 urte bitarteko emakumeak dira (biztanleriaren %29,3) eta hamarretik bat (%12,5) 65 urtetik gorako emakumeak.



Biztanleriaren piramidea, gizonen eta emakumeen arteko aldea erakutsiz, bai eta adin-tarteak ere. 2017.
Iturria: Eustat.

Aipatzekoa da Bermeok biztanleria-hazkunde nabarmena izan zuela 2004 eta 2008 artean, bai eta beherakada handia ere 2013 eta 2016 artean, 2017an pixka bat igo dena. 2020an (grafikoan sartu gabe) % 8,5eko igoera ikusi da, 144 pertsonakoa.



Biztanleria osoaren bilakaera. 2017ko datuak eta 2020ko biztanleria adierazten duen puntua.
Iturria: Eustat eta 2020ko datu erantsia.

Eremuko enplegua eta udaleko enplegu-politika

Bermeoko 16 urteko eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa 14,4 da 2019an, eta emakumeena gizonena baino nabarmen handiagoa da (15,1, 13,7ren aldean).

- 16 urteko eta gehiagoko biztanleen langabezia-tasa, guztira: 14,4
- Emakumeak 15,1
- Gizonak 13,7

Eustaten arabera, Bermeon 4.667 langile daude: biztanleria osoaren % 28. Datuak ez daude sexuaren arabera banatuta.

Bermeon, 2019an, 18 urtetik gorakoen errenta pertsonala 15.678 eurokoa da; emakumeena, berriz ere, gizonena baino nabarmen txikiagoa da, 8.072 euroko aldearekin, 18 urtetik gorako emakumeen batez besteko errentarekin alderatuta % 55 gehiago.

- 18 urtetik gorakoen errenta: 15.378 €
- Emakumeak 14.538 €
- Gizonak 22.610 €
- Emakumeen eta gizonen arteko aldea: 8.072 €
% 55 gehiago, 18 urtetik gorako emakumeen batez besteko errentarekin alderatuta


4.2 Planaren onurak edo emaitzak

Aurreikusten al da emakumeek eta gizonek Bermeoko Portuaren geroako Plan Berezitik ondorioztatuko diren onura edo emaitzetan izan duten presentziak sektorean desberdintasunak gutxitzen lagunduko duen?

Plan Bereziaren Aldaketatik ondorioztatuko diren onurak edo emaitzak Bermeoko Portuko espazio fisiko eta eraikinen antolamendua hobetzea dela kontuan izanda, espazio hori erabiltzen duten herritarrak izango dira onuradunak, emakumeak nahiz gizonak. Planak sektoreko desberdintasunak gutxitzen lagunduko du, espazio publikoa hobetuko duen antolamendua proposatzen duen eta antolamenduko eraikinek emakumeen eta gizonen beharrak betetzen dituzten heinean.

Eremuaren antolamenduak planoan adierazten diren erabilera xehatu hauek ditu. Generoari dagokionez, honako erabilera hauek dute eragin handiena:

- Erabilera komunitario publikoak (SZUC, urdina), hirigunetik hurbilen dauden eremuetan kokatuak, eremuaren ipar-mendebaldean eta mendebaldeko muturrean, geltokitik gertu eta ontzitegiko azpialdeak inguratuta (SZVR, hori-marroi argia). Genero-ikuspegitik, garrantzitsuak dira ekipamendu-baliabideen irisgarritasuna hobetzeari dagokionez.
- Eremuaren hegoaldean dauden industria- eta merkataritza-erabilerak (SZIC, arrosa), enplegua sortzeko aukerari dagokionez.



Kalifikazio xehatuaren planoak. Urdinez, erabilera komunitario publikoak, hirigunetik gertu (eremuaren iparraldean eta mendebaldean). Arrosaz, industria- eta merkataritza-erabilerak, eremuaren hegoaldean.

Plan Bereziaren Aldaketaren eremua, helburuak eta hirigintza-antolamendua kontuan hartuta, Plan Bereziak emakumeei eta gizonei mesede egitea aurreikusten da, bi alderditan:

- Batez ere enplegurako eta jardura ekonomikorako irisgarritasuna hobetzeko. Horregatik, egungo eta etorkizuneko lanpostuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dagoen ala ez kontuan hartuta, Plan Bereziak sektoreko desberdintasunak murrizten lagunduko du.
- Bestalde, portuaren eta hiriaren arteko elkarreragina gertatzen den guneean erabilera komunitario publikoak eta hiri-kalitatearen hobekuntza dira generoaren arabera garrantzi handiena duten alderdiak.

Hala ere, planak sektoreko desberdintasunak murrizten lagunduko duela aurreikusten da, espazio publikoa eta gizonen eta emakumeen beharrak asetzen dituzten eraikinak egungo egoera baino hobeto antolatzea planteatzen baitu, bai eta 2020an aurreikusitako antolamendua ere.

4.3 Baliabideak eskuratzeari dagokionez

Aurreikusten al da Bermeoko Portuaren geroko Plan Bereziak baliabideak eskuratzeari dagozkion desberdintasunak ezabaraztea edo, behintzat, gutxitzea?

Hiri-baliabide fisikoetarako (espazio libreak, ekipamendu publikoak, merkataritza eta zerbitzuak) eskuragarritasunari dagokionez, Bermeoko Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren 3. Aldaketak egungo egoera honela hobetzen du:

- Portuaren eta hiriaren arteko elkarrekintza gertatzen den eremuetan hiri-kalitatea hobetu egiten du; batez ere, eremuaren iparralde osoan.
- Portuko jarduerari lotutako enplegurako eta jarduera ekonomikoetarako irisgarritasuna hobetzen du. Bereziki garrantzitsua da eremuaren hegoalde osoan. Hori aukera bat izan daiteke enpleguan dagoen desberdintasuna hobetzeko, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa baita (% 15,1 eta % 13,7, hurrenez hurren). Halaber, Bermeoko soldata-arrakala murrizteko, emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonena baino % 55 txikiagoa baita. Beraz, hobekuntza baldintzatuta egongo da jarduera ekonomikorako eraikinetan (industria- eta merkataritza-erabilerak) sortzen den enpleguak emakumeen kalitatezko enplegua sustatzen duen neurrian.

4.4 Ordezkaritza erabakiak hartzean

Erabakiak hartzeari dagokionez, Bermeoko Portuaren geroko Plan Bereziak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua edo, behintzat, eremuan duten presentziaren antzekoa dena?

